

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Behin betiko onestea Ibaialde 11. sektoreko RD-24 lurzatiaren birpartzelazioa

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko irailaren 24an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onestea Ibaialde 11. sektoreko RD-24 lurzatiaren birpartzelazioa

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia

2021eko uztailaren 14an, Creative Homek aurkeztutako eskabidea sartu zen Gasteizko udalaren erregistroan, eta eskabidearekin batera aurkeztu zuen borondatezko birpartzelatze-proiektua onesteko eskatzen zuen.

Borondatezko birpartzelatze-proiektuaren xedea jatorrizko lurzattia txikiagotan zatitzea da, indibisoak murrizteko, eta, hartara, sortutako zati bakoitza modu banakakoagoan kudeatu ahal izateko. Horrela, bost lurzati sortzen dira; horietako lauk sestra gaineko hirigintza aprobetxamendua dute, eta horien artean banatzen da esleitutako eraikigarritasuna, eta lortu nahi den helburuari hobeto egokitzen zaizkion jabetza-esleipenak egiten dira. Bosgarren lurzattia multzoa egituratzen duten higiezin-multzoaren elementu komuna da, eta lurpeko aparkalekurako sarrera- eta irteera-arrapalak eta sestra azpian aparkatzeko zenbait plaza hartzeko da.

Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuko arkitektoak txostena egin zuen 2021eko uztailaren 21ean, eta bertan adierazi zuen ez zegoela inolako eragozpenik aurkeztutako birpartzelazio-proiektuaren tramitazio administratiborako.

Gerora, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko ekainaren 18an egindako ohiko bilkuran, hasierako onespena eman zion Ibaialde 11. sektoreko RD-24 lurzattia borondatez birpartzelatzeko proiektuari.

Aurreko paragrafoan adierazitako erabakia jabeei jakinarazi zitzairen, eta 2021eko abuztuaren 11n ALHAOn (90. zk), eta Gasteizko Udaleko Iragarki-taulan argitaratu zen, eta El Correo (Arabako edizioa) eta Diario de Noticias de Álava egunkarietan, 2021eko abuztuaren 26an.

2021eko irailaren 6an, Prosrurna, L13, Creative Home eta 21 Zabalgunea hirigintza-sozietateko ordezkari bakoitzak idazkia aurkeztu zuten Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuan. Bertan adierazi zuten birpartzelazio horren berri izan zutela eta uko egiten ziotela Ibaialde 11. sektoreko RD-24 etxadia birpartzelatzeko proiektuaren hasierako onspenaren aurka alegazioak egin eta aurkezteari.

Azkenik, Udalaren Topografia Atalak 2021eko uztailaren 27an egindako txostenaren arabera, jaso ditu Gasteizko Ibaialde 53. sektoreko 913. poligonoko 912 lurzatiaren barneko partzelazio-proiektuaren planoak, eta Lerroakadura, sestra, zuinketa akta eta obra amaierako planoei buruzko Udal Ordenantzan ezarritakoa betetzen dutela egiaztatu da.

Aplikatzekoa den Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 136.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, indibiso araubidea duten orubeak birpartzelatu egin ahal izango dira. Horretarako, gutxienez jabetza-kuotaren ehuneko 50 ordezkaten duen edozein

jabekidek egin beharko du eskaera, eta birpartzelatzeak ez du gaindituko orubearen eremua. Ildo beretik jotzen du 105/2008 Dekretuak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten presako neurriei buruzkoak, 40.2 artikuluan.

Horri gehitu egin behar zaio premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak –Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea garatzen du— 10. artikuluan xedatutakoa. Bertan ezartzen denez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean aurreikusitako birpartzelatze-proiektuak onesteko abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuan –Hirigintza Kudeaketaren araudia onesten duena– adierazitakoari jarraituko zaio, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriak emateko Dekretuan aurreikusitako zehaztapenak gorabehera.

Toki Jaurbidearen Oinarrien Legeak arautzen dituen 7/1985 Legearen 127.1.d) artikulua xedatzen duenez, Tokiko Gobernu Batzarrak du hirigintza-kudeaketarako tresnak kudeatzeko azken eskumena, eta horren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio Gasteizko Ibaialdeko 11. sektoreko RD-24 lurzatiaren birpartzelazioa onartzeko erabakia hartzea.

Aurrekoa ikusirik, Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zinegotzi ordezkariak hau proposatzen dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

1. Behin betiko onestea Gasteizko 11. sektoreko - Ibaialde – RD-24 lurzattia birpartzelatzeko proiektua.

2. Erabaki honen ziurtapenaren hiru ale bidaltzeko agintzea, 1093/1997 Errege Dekretuaren 2.2 artikulua haritik, ondoren erregistroan inskribatu ahal izan dadin.

3. Erabaki hau argitaratzea eta interesdunei jakinaraztea. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, alde aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo ustez ebatzi arte—. Horren ondoren berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, dagokion araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko irailaren 28an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE